



Txostena 2016-2017

Aldezle

Lege esparrua

Deustuko Unibertsitateko Aldezlearen Antolaketari eta Jardunbideari buruzko Araudiaren 15. artikulua¹ betetzeko, zeinak indarrean dagoen legearen (LOU 6/2001) hamalagarren xedapenean ezarritako oinarriak jasotzen dituen, Aldezleak 2016ko ekainaren 1etik 2017ko maiatzaren 31ra egindako lanaren Urteko Txostena aurkezten da, araudi horren 15. artikuluari jarraiki: “Aldezleak urteko txostena prestatuko du, aurreko ikasturtean burutu dituen jarduerak zehazteko”. Txosten horretan jasoko da zenbat erreklamazio eta zein motatakoak aurkeztu diren, izapidetzeko onartu ez direnak zergatik ez diren onartu, eta izapidetzeko onartuetan zein izan zen emaitza. Txostenean, ez da isilpeko daturik edo datu pertsonalik jasoko, interesdunak identifikatzeko aukerarik egon ez dadin”.

Txosten hau ohiko moduan zabalduko zaie DUko langileei eta ikasleei, barruko komunikabideak, estraneta eta sare sozialak erabiliz. Dokumentua Unibertsitateko Aldezlearen webgunean² jarrita egingo da aurkezpen publikoa eta bertan egongo da ikusgai aurreko urteetako txostenekin batera. Aurten, 2017ko ekainaren 6ko Kontseilu Akademikoan, balorazio txostena egin da Aldezlearen erakundea sortu zenetik honako lau urteetan eman duen zerbitzuaz, izan duen funtzionamenduz eta Unibertsitatean lortu duen errotzeaz (aurreko urteetan, ikasturtearen txostenaren laburpena baino ez zen aurkeztu).

Txostena idazteko orduan, arreta handia jarri da kide guztien eskubide eta askatasunak errespetatzeko, unibertsitateko bizitza arautzen duten arauak betetzeko eta konfidentzialtasun osoa gordetzeko pertsonen eta kasuen tratamenduan, informazioaren gardentasuna galdu gabe.

¹ Kontseilu Akademikoak onartua 2013ko martxoaren 14ko bilkuran eta 45. DUAOn argitaratua, 2013ko maiatzaren 14an.

² http://www.deusto.eus/cs/Satellite/deusto/eu/deustuko-unibertsitatea-2/deusturi-buruz/nor-garen/aldezlea?cambiodioma=si&_ga=2.224243099.1224033656.1505380267-1101221089.1499841152

EDUKIAK

Aurkezpena (3)

Atariko gogoetak eta kontsulta motak (3)

Datuak, azterketa eta jarduketaren deskribapena (5)

1. Jarduketak (6)

- i. Jarduketa motak (6)
- ii. Banaketa campusaren arabera (7)
- iii. Erabilitako hizkuntza (8)
- iv. Banaketa sektorearen arabera (8)
- v. Banaketa ikastegi eta zerbitzuen arabera (9)
- vi. Banaketa kolektiboaren eta sexuaren arabera (9)
- vii. Jarduketak fakultate eta kolektiboen arabera (10)
- viii. Jarduketak ikasketa mailaren arabera (11)
- ix. Ebazpenen emaitza (11)
- x. Jarduketak eskaeren arrazoiaren eta kolektiboaren arabera (12)

2. Datuen balioespena (13)

3. Erakunde mailako jarduketak (14)

- i. Kanpoko jarduerak (14)
- ii. Barruko jarduerak (15)
- iii. Ikasleak (16)
- iv. Beste batzuk (16)

Azken gogoetak (17)

Aurkezpena

Txosten honetan, aurkezpenaren ondoren, atal nagusian, egindako jarduketan datuak, azterketa eta deskribapena eskaini eta jarduketak balioetsiko dira. Horren ostean, ikasturtean zehar izan diren erakunde mailako jarduerak aipatuko dira, barrukoak eta kanpokoak, eta, bukatzeko, laburpen batean, kontu orokorragoen inguruko hausnarketa egingo da, ondorio gisara, Aldezlearen bizipenetan oinarrituta.

Aurreko urteetako ibilbideari jarraiki, aurtengo ikasturtean Aldezleak ahalegina egin du zerbitzura laguntza bila gerturatu diren pertsona guztiei arreta emateko, aldezleari dagozkion independentzia, konfidentziasuna eta neutraltasuna gordez, eta hainbat kasutan, pertsonen zuzenean eragiten zieten arazoak entzun ditu eta hobetzeko bidea aurkitzen saiatu da unibertsitateko interes orokorra eta funtzionamendu egokia eta elkarteko kideen arteko harreman onak gogoan. Gatazkak konpontzeko orduan, beti saiatu da elkarrizketaren bidez egiten, zintzo eta adostasuna bilatuz.

Ahalegina egin da aurreko urteetako komunikazio mailari eusteko, bai barruan, ikasleekin, bai kanpoan, beste aldezle batzuekin, dagozkion atalean ikusiko den moduan.

Esker ona adierazi nahi diegu gatazkak onbideratzeko informazioa eta laguntza emanaz Aldezleari lagundu dioten unibertsitateko organoei, baita kexa, erreklamazio, kontsulta edo arazoren bat aurkeztera Aldezlearengana jo dutenei ere, zerbitzuan jarritako konfiantzagatik. Gogoan ditugu, halaber, eta barkamena eskatzen diegu bidenabar, Aldezlearen jarduketekin behar bezala defendituak sentitu ez edo dagozkien eskubideak ez zaizkiela aitortu uste duten pertsonak.

Atariko gogoetak eta kontsulta motak

Aurtengo ikasturtean era honetako jarduketak kudeatu dira:

- **Kexak.** Interesdunak uste du organo batek edo unibertsitateko norbaitek hartutako erabaki batek edo egintza batek bere eskubideak urratzen dituela. Halako erreklamazioak arazoa konpontzeko eskura dauden beste bide guztiak erabili ondoren iritsi behar dira Aldezlearengana. Hala ere, ohikoa da Aldezlearengana jotzea, azken instantzia dela jakinda ere, arazoa bideratzeko orientabide, laguntza edo aholku eske. Batzuetan, dena delakoagatik, ez dagokio Aldezlearengana jotzea eta, orduan, ez da eskabidea izapidetzea onartzen.
- **Kontsultak.** Orientabidea, informazioa edo laguntza eskatzen dute. Gaiak askotarikoak izan daitezke: arauak, administrazio kontuak, funtzionamendu

kontuak, maiz elkarbizitzarekin edo lanarekin zerikusia dutenak. Gestioak, gehienetan pertsonalak, unibertsitateko kudeaketa organoen aurrean egin behar izaten dira eta, normalean, arazoari irtenbide azkarra ematen laguntzen dute. Batzuetan, informazioa bera aski izaten da.

Aurreko txostenetan bezala, hiru kontsulta mota bereizten ditugu: prozedura formalari jarraitzen diona eta kodifikatua izan dena; kontsulta puntuala, azkar bideratzen dena, normalean, nahikoa izaten delako orientazioa edo laguntza ematea, kodifikatu beharrik gabe; eta hirugarren mota bat, aurrekoaren aldean inguruabar bereziak dituena. Oro har, hirugarren kontsulta mota hori ez erregistratzeko arrazoia izaten da jendeak ez duela nahi bere datuak datu base batera biltzerik, identifikatuko ote dituzten beldurrez, nahiz eta konfidentzialtasuna bermatuta dagoen. Beste batzuetan, kontsulta egiten duen pertsonak berak eskatzen du Aldezleak eskurik ez sartzeko, berak berariaz eskatu ezik. Halako kasuak hemen aurkezten diren datu estatistikoetatik kanpo geratu dira, baina, hala ere, arreta berdina eman zaie eta azkar erantzuten saiatu gara, beste era bateko jarduketaz bada ere.

- **Bitartekaritza** dugu Aldezlearen jarduketetako bat -oso gomendagarria unibertsitateko bizitzako gatazkak konpontzeko-, unibertsitateko elkarteko edo kolektibo bateko kide batek berariaz eskatuta. Aurtengo ikasturtean ez da bitartekaritzarik egin.
- Eta, azkenik, **ofiziozko jarduketak**. Aldezleak egiten ditu ikusiz gero Unibertsitatearen ebazpen edo egintzaren batek edo unibertsitateko elkarteko kideren batek unibertsitateko kideren baten eskubideak urratzen edo kaltetzen dituela. Horrez gain, unibertsitateko sistemaren kalitate kontrolari begira ere egin daiteke bitartekaritza, baina eginkizun hori oso murriztuta dago, zuhurtasun printzipioagatik batez ere.

Aldezleak ez du ebazteko ahalmenik, baina, kasuen arabera, gomendioak edo iradokizunak eman ditzake edo txostenak egin aurkeztutako kexak direla eta. Agintari akademikoei edo zuzendaritzako agintariei dagokie behar dena egitea. Aurtengo ikasturtean gomendioak eman dira eta bi txosten egin dira.

Izapidetzea onartuz gero, interesdunaren eskabideari dagozkion jarduketei ekiten zaie. Aldezlearen Antolaketari eta Jardunbideari buruzko Araudian (9. art.) ezarritako baldintzak betetzen ez diren kasuetan, ez da onartzen eskabidea izapidetzea.

Aurtengo ikasturtean, esku hartzeko lau eskabide ez dira onartu.

Azkenik, eta araupeko jarduketetatik kanpo, gorago esan denez, zenbat pertsona arreta bila eta entzunak izatera etorri dira. Denei eman zaie arreta eta laguntza eta, kasuen arabera, aholkua ere bai.

Datuak, azterketa eta jarduketaren deskribapena

Atal honetan, tratatu diren gaien datu estatistikoak aurkeztuko dira, ikasturteko jarduketaren laburpenarekin batera. Gorago azaldutako arrazoiak direla eta, zenbait jarduketa datu estatistikoetatik eta informazio zehatzetik kanpo gelditu dira; dena dela, azpimarratu behar dugu beti egon dela elkarrizketa bat gutxienez.

Kexak eta kontsultak Aldezlearen ohiko gestio pertsonalen bidez ebatzi dira; hots, egoera eta arrazoiak aztertu dira, kasuarekin zerikusia duen aginte, organo edo zerbitzuarekin hitz egin da eta informazioa edo txostenak eskatu dira. Komunikabideei dagokienez, kasuaren izaeraren arabera, kexak eta kontsultak egiteko, jendeak Aldezlearengana edo idazkaritzara jo du zuzenean, telefonoz deitu edo posta elektronikoa bidali. Jarduketak bukatutakoan, erreklamazioaren egileek idatziz jaso dute ebazpena beti. Kasuen izaeraren arabera, txostenak edo gomendioak eman zaizkie pertsona, zerbitzu edo organoei, egindako kaltea konpontzeko edo zerbitzua hobetzeko.

Kasu gehienak Araudian ezarritako epeen barruan ebatzi dira, hau da, bi hilabeteko epearen barruan. Hala ere, honetan badago zer hobeturik. Kasu batzuetan ez zaio Aldezlearen errekerimenduari erantzun eta beste batzuetan, arreta eman beharra onartuta ere, ez zaio konponbiderik jarri kexaren jatorriari. Hala bada, badira zenbait kasu oraindik ere zabalik daudenak lau, bost edo zazpi hilabete igarota.

Hiru arrazoi egon dira lau kasu izapidetzea ez onartzeko: prozedura arrunta agortuta ez egotea, eskabide bera lehenago ere izapidetuta egotea baina eskatzaileak berriz egitea, edo zentzuzko oinarririk ez edukitzea. Dena dela, kasu horietan ere eskaini zaie arreta eta ahal izan den neurrian lagundu.

1. Jarduketak

Hona hemen grafikoak, aldagai hauek kontuan hartuta: tipologia, campusa, hizkuntza, sektoreak, ikastegiak eta zerbitzuak, kolektiboa eta sexua, ikasketa maila, egoera, ebazpenen emaitza eta, amaitzeko, taula batera bilduta, jarduketak ageri dira, eskabidearen arrazoiak zehaztuta eta kolektibok bereizita.


i. Jarduketa motak



Aurtengo ikasturteko 26 jarduketetatik, gehienak (23) kexei erantzutekoak izan dira eta 3 baino ez dira kontsulta moduan sailkatu. Gorago esan denez, kontsulta asko egon dira, baina, izaera eta motagatik, erregistrotik kanpo utzi dira. Horrexegatik ageri dira kontsulta gutxiago kexak baino datu estatistikoetan. Dena dela, arauetatik kanpokoak ez diren halako eskabideek, gestio ofizialik behar ez dutenez, bizkor bideratzen dira, behar den seriotasun eta zorrotasuna galdu gabe. Azkenik, ez da bitartekaritzaren eskabiderik egon eta ez da ofizioz jardun. Egin diren txostenak kasuen ebazpenean jasota geratu dira.


Hiru komunikabide erabili dira. Posta elektronikoa izan da nagusia (15), aurrez aurreko elkarrizketa hurrengoa (9) eta telefono deiak azkena (2). Hori dela eta, eta azken bi urteetako datuak kontuan hartuta, aldatu egin da esku hartzeko eskaera egiteko formularioaren tramitazioa.

ii. Banaketa campusaren arabera



Esku-hartze gehienak –erregistratu gabekoak ere bai– Bilboko campusean egin dira, 20 kasu guztira; Donostian 3 izan dira eta Madrilen 1. “Besterik” atalekoak Valentziatik egindako kontsulta bat eta Monterreytik (Mexiko) bidalitako kexa bat izan dira.


iii. Erabilitako hizkuntza



Erreklamazioa egiteko orduan, gaztelania izan da hizkuntzarik erabiliena, 21 kasutan, ingelesa ondoren, 3 kasutan, eta, azkenik, euskara, bi kasutan. Behin


kontaktua eginda, ordea, euskararen erabilera handiagoa izan da Aldezlearekiko harremanetan.

iv. Banaketa sektorearen arabera




Aurreko urteetan bezala eta itxarotekoa zenez, ikasleak izan dira Aldezlearen zerbitzura gehien jo dutenak. Aurtengo ikasturtean 16 izan dira guztira eta haietako bat ikasketak amaitutako ikaslea. Ikasleen ondoren, administrazio eta zerbitzuetako langileak datoz, 7 kasurekin, eta, azkenik, irakasle-ikertzaileak, 3 kasurekin.

v. Banaketa ikastegi eta zerbitzuen arabera



Izapidetu diren arazoak, zentroyen arabera, honela geratzen dira: Administrazioa eta zerbitzuak, 4 jarduketak; eta fakultateei dagokienez: DBS, 8 kasu; Gizarte eta Giza Zientziak, 7; Zuzenbidea, 4; Ingeniaritza, 2; eta, azkenik, Psikologia eta Hezkuntza, 1.


vi. Banaketa kolektiboaren eta sexuaren arabera



Kolektiboa eta sexua kontuan hartuta, badira aldeak, grafikoan ageri denez. Aurreko urteetako ildotik, kolektibo guztietan, irakasle-ikertzaileenean izan ezik, zerbitzura jo dutenen artean, gehiago dira emakumezkoak gizonetzkoak baino.


Mistoa jartzen duenean esan nahi da zerbitzura jo zuenak (emakumea) talde baten izenean egin zuela.

vii. Jarduketak fakultate eta kolektiboen arabera



Aurtengo ikasturtean ere, ikastegi eta kolektibo aldagaiak gurutzatuta, emaitzak ez dira berdinak fakultate guztietan. Gizarte eta Giza Zientzien Fakultatean izan dira ikasleen kasu gehienak, 7 ikasleak eta ikasketak amaitutako ikasleak batuta, eta, gainera, fakultate horretan ikasleek baino ez dute jo Aldezlearengana. Psikologia eta Hezkuntza Fakultateko kasu bakarra ere ikasle batena da. Zuzenbidean, berriz, ikasleen eta irakasle-ikertzaileen bina kasu egon dira eta administrazio eta zerbitzuetako langileen kasu bat. Ingeniaritzan ere kasu kopuru bera egon da ikasleen eta irakasle-ikertzaileen artean, bat kolektibo bakoitzean. Eta, azkenik, DBSn kasu gehiago daude ikasleen artean, 5, AZLen artean baino, 3. Ikastegi horretan, ez da esku hartzerik egon irakasle-ikertzaileen eskariz.

viii. Jarduketak ikasketa mailaren arabera



Ikasketen mailari dagokionez, aurreko urteetan bezala, graduako ikasleak izan dira, alde handiz, zerbitzura gehien jo dutenak, 12 hain zuzen ere. Zerbitzuaz baliatu diren masterreko ikasleak 3 izan dira eta bakar 1 doktoregokoa.

ix. Ebazpenen emaitza



Grafikoko ehunekoen atzean datu hauek daude: aldeko ebazpenak: 10; kontra ebaztitakoak: 9; balorazio gabeak: 3; eta zabalik daude, ebazpenaren zain: 4.

x. Jarduketak eskaeren arrazoiaren eta kolektiboaren arabera

Eskabideen arrazoiak	Ikasleak	Ikasketak amaitutako ikasleak	Irakasle-ikertzaileak	AZL
Azterketen berrikusketa	1	-	-	-
Azken deialdia	2	-	-	-
Ikasleen zerbitzuei buruzko kontsulta	-	-	1	-
Tituluaren akreditazioa	1	1	-	-
Irakaslea eskolara ez etortzea	1	-	-	-
MALa egiteko baldintzak	2	-	-	-
Araudia aplikatzearen ondoriozko zigorra	1	-	-	-
Erasmus egonaldia	1	-	-	-
Ikertaldearekiko atxikipena	1	-	-	-
Lanpostuak, errekonozimendua, lansaria eta sustapena	-	-	-	3
Lanposturako irisgarritasuna				1
Lanpostua eta osasuna	-	-	-	1
Bekak	2	-	-	-
Komunikazioarekin lotutako gaia	-	-	1	-
Tasak eta ordainketak	2	-	1	2
Hobekuntza aplikazio informatikoan	1	-	-	-
Guztira	15	1	3	7

2. Datuen balioespena

Aurreko urteetako datuekin alderatuta, esku-hartzeen kopurua bigarren urtekoenaren antzekoa izan da. Aipatzekoa da zenbat aldatzen diren kopuruak urte batetik bestera, gure unibertsitatean ez ezik, beste unibertsitateetan ere bai. Ohikoa da, halaber, ikasleenak izatea kasurik gehienak eta, askotan, informazio eta aholku eskaerak izatea. Horrek adierazten du dekanotzetan kasu egiten zaiela bertan sortzen diren gatazkei eta behar bezala bideratzen direla. Kexak aurkezteko orduan, irakasle-ikertzaileek eta AZLek, berriz, zerbitzura jotzen dutenean, esku hartzeko eskatzen dute beti.

Ikasleen kasuan, gure zerbitzuak gero eta esku-hartze gutxiago egiten du eta, behin ikasleak orientatuta nora jo behar duten, ez dira zerbitzura itzultzen. Horrek argi adierazten du ikasleei arazoak eta gatazkak konpontzeko ematen zaien arreta hobetuz doala. Dena dela, komunikazioan ahalegin handia egiten bada ere, agerikoa da ikasle askok ez dutela interes handirik dagozkien gaiak ezagutzeko, esaterako, Ikasleen Araudia eta ikastegietan aplikatzekoak zaizkien arauak. Berriz ere azpimarratu behar dugu ikasleen eskubideekin eta, ondorioz, betebeharrekin ere lotuta dagoen guztia aintzat hartu behar dutela unibertsitatean dauden bitartean. Horrela, arazo, atsekabe eta, batzuetan, atzerabiderik ez duten ondorio asko saihestuko lituzkete.

Gaiei dagokienez, ez dago berrikuntza handirik aurreko urteetatik aurtengora. Unibertsitateko beka eta laguntzen ingurukoak gutxi dira eta, gehienbat, erakunde publikoek darabiltzaten irizpideei buruzkoak. Kasu batzuetan, egokia litzateke irizpideak eguneratzea gizartean izandako aldaketak kontuan hartuta. Barruan, satisfazio handia dago gure unibertsitateak ikasleentzat duen beka politikarekin; ez bakarrik horretan inbertitzen dituen baliabideengatik, baita kudeaketaren eraginkortasunagatik ere. Zenbait kontzeptugatiko ordainketak ere izan dira kexagai.

Ikasleek aurkeztutako gainerako kasuak askotarikoak dira, puntualak eta, gehienei egoki erantzun ahal izan zaie. Emaidza akademikoak, beste behin ere, ikasleren bat kexatzeko gai izan dira. Beste kexa batzuen arrazoiak (ez beti modu ofizialean aurkeztuak) azterketa berrikusteko modua, kalifikatzeko irizpideak programa ofizialean iragarritakoekin bat ez etortzea eta aplikatzeko orduan desberdintasunak egotea izan dira. Gai akademikoekin jarraituz, aurreko urteetan bezalatsu, arazoren bat egon da ikasketen amaierako lana dela eta, tituluaren akreditazioa dela eta, eta irakasleren bat eskolara ez agertzeagatik. Dena dela, gehienetan noizbehinkako kontuak izan dira, baita kexa taldeak aurkeztu duen kasuetan ere (erregistroa beti egiten da modu indibidualean baina), eta ez dute aparteko garrantzirik izan. Azkenik, aipatzekoa da, Deustuko Unibertsitateak Erasmus programan egin duen bide luze eta oparoaren ondorioz, arlo horretan apenas egoten dela kexarik, eta aurten ere kasu solteren bat baino ez dela gertatu.

Irakasle-ikertzaileek eta AZLek aurkeztutako kexak hain gutxi izanik, ez du merezi jarduketa moten azterketarik egiterik. Gorago esan denez, ikasleek ez bezala, zeinek gehienetan informazioa eta aholkua eskatzen duten, irakasle-ikertzaileek eta AZLek – aurten ez da egon ikertzaileen eskabiderik– esku hartzeko eskatzen dute erregistratutako

eskabideetan. Horrexegatik hain zuzen ere azkar erantzun beharko litzaieke eta, batzuetan, ez da hala izan.

Arazoak konpontzeko hartzen den denbora hobetu beharra dago. Horretan behar den kalitatea mantendu nahi izan dugu, baina ez dugu beti lortu. Oraindik ere unibertsitateko elkartearen zati bat ez da jabetu Aldezlearen errekerimenduei erantzun egokia, arrazoitua eta arrazoizko epearen barruan ematea denon betebeharra dela. Printzipio hori kasu guztietan aplikatzekoa da, esku-hartze mota eta ebazpena zeinahi dela ere. Eta esan beharko genuke are beharrezkoagoa dela hala jokatzera erantzuna eskatzaileak espero ez duena baldin bada.

Azkenik, kasu konplexuak aipatu behar ditugu, konponbide egokia ez baitago unibertsitatearen eskuetan. Erakunde publikoen esku hartzea behar dute eta, nahiz eta erreklamazioak bidezkoak izan eta eskatzaileak zuzenbidearen babespean egon, kanpoko hainbat gestio egin behar izaten da, horrek asko luzatzen du ebazteko epea eta, batzuetan, zailtasun handia dute eta hori ere oztopo izaten da nahi genukeen emaitza lortzeko eskatzaileen mesedetan.

Erakunde mailako jarduketak

i. Kanpoko jarduerak

2016ko ekainaren 27an eta 28an, Kantabriako Unibertsitateko Aldezleak antolatuta, G9 Taldeko Aldezleen topaketa egin zen Santanderren eta Deustuko Aldezlea gonbidatua izan zen. Bertan gai hauek jorratu ziren: ikasleen diziplina faltako egoerak eta errespeturik gabeko jokabideak; Aldezleen jarduketak delitutik hurbil dauden egoeretan; eta, azkenik, ikasketen modalitate semipresentzialetan eta urrutikoetan gertatzen diren arazo espezifikoak. Topaketa beraren barruan, gainera, saio berezi batean, Aldezleen sare iberoamerikarra sortzeko proiektua aztertu zen, Aldezleen Espainiako Biltzarreko presidentearekin eta Mexikoko Unibertsitateko Eskubideak defendatzeko Organismoen Sareko presidentearekin.

Aldezleen Estatuko XIX. Topaketa Kordoban egin zen urriaren 19an, 20an eta 21ean. Bertan, gai hauek landu ziren: Aldezleen ekarpena unibertsitateen gardentasuna eta gobernu ona hobetzeko, Jazarpena unibertsitate esparruan, eta Laneko eta familiako bizitza uztartzea unibertsitatean. Beste gai hau ere jorratu zen topaketan: “Bitartekaritza aldezleen zerbitzuetan: ikuspegi juridikoa eta psikosoziala”. Gainera, CEDUren urteko Batzarra egin zen eta bertan Batzorde Exekutiboaren gestioa, 2016ko txosten ekonomikoa eta 2017rako aurrekontua onartu ziren. Azkenik, Batzorde Exekutiboko kide baten baja bete zen.

Aldezleak, abenduaren 9an, Bilbon, Arartekoak egindako gonbitari erantzunez, Manuel Lezertua ararteko jaunak eta Juan Luis Ibarra EAeko Justizia Auzitegi Nagusiko buruak

Giza Eskubideen Nazioarteko Eguna dela eta antolatutako ekitaldian izan zen. Ekitaldi horretan, Guido Raimondi Giza Eskubideen Europako Auzitegiko buruak hitzaldi hau eman zuen: “La Jurisprudence de la Cour Européenne des Droits de l’Homme en matière de droits sociaux”.

2017ko otsailaren 2an eta 3an, Urrutiko Unibertsitatearen Madrilgo egoitzan, G9ko Unibertsitateen topaketa egin zen. Deustuko Aldezleak gonbidapena jaso zuen ohi bezala. Honako hauek izan ziren gogoetagaiak: “Irakasle politika murriztaileak eta plantilen zahartzea”, “Doktorego tesien ebaluazioa” eta “Espainiako Unibertsitate Sistemari eta Europako Unibertsitate Eremuko integrazioari buruzko gogoetak”. Azkenaren pisua dela eta, bi zatitan aztertu zen: lehena, “Ezarritako helburuen betetze maila” eta, bigarrena, “Ikasleen eskubide eta askatasunen murrizketaren inplikazioak”.

Comillaseko eta Loiolako Aldezle zerbitzuak eratu ondoren, batzuen eta besteen esperientzien berri izateko, kudeaketako irizpideak batzeko eta UNIJESeko aldezleen sarea sortzen hasteko, Aldezleak bilera eduki zuen Maravillas Araluce Comillas Unibertsitateko aldezlearekin eta M^a del Carmen López Loyola Unibertsitateko aldezlearekin. Topaketa martxoaren 30ean izan zen, Comillas Unibertsitatean. Aldez aurretik pentsatutako helburuak bete eta etorkizunerako elkarlanerako ildoak jarri ziren.

Azkenik, Aldezleak Aldezleen Estatuko Batzarrak (CEDU) antolatutako Eztabaida Jardunaldian hartu zuen parte maiatzaren 26an, Madrilen. Batzarrean gai hauek eztabaidatu ziren: “Eskubide krisia unibertsitateetan” eta “Aldezle zerbitzuen lana”.

ii. Barruko jarduerak

2015-2016 ikasturteko txostena 2016ko abenduaren 13ko Kontseilu Akademikoan aurkeztu zen.

Ohikoa denez, Aldezlea 2016-2017 ikasturtearen inaugurazio ekitaldi ofizialean izan zen, Bilboko campusean, 2016ko irailaren 15ean. Ekitaldi instituzionalen atal horren barruan, San Tomaseko festaburuan izan ohi diren ekitaldietan ere hartu zuen parte urtarrilaren 28an.

Eta, era berean, Deusto Business Schoolen mendeurrenaren ospakizunean izan zen, Bilboko campusean, 2016ko azaroaren 16an.

Martxoaren 29an, Enplegu Foroaren inaugurazioa zela eta, lan gosarira joan zen. Bertan izan zen Iñigo Urkullu lehendakaria.

iii. Ikasleak

Aurreko ikasturteetako tradizioari jarraiki, irailaren 1ean eta 2an Aldezleak defentsa zerbitzua aurkeztu zien ikasleei Bilboko eta Donostiako campusetan.

Berrero ere, Deusto Campusen laguntzarekin, aurtengo ikasturtean prestakuntzako bi ikastaro eskaini zaizkie ikasleei. Lehenengo hiruhilekoan gai hau landu zen: “Gatazka modu positiboan kudeatzeko tresnak eta teknikak: negoziazioa eta bitartekaritza”, eta bigarren hiruhilekoan, “Bullinga eta ziberbullinga”. Biek izan zuen arrakasta handia, batetik ikastaroetan hainbat ikaslek hartu zutelako parte eta, bestetik, pozik gelditu zirelako ikastaroekin.

Aurten ere, Aldezleak Anaia Garate dohatsuaren omenezko XVI. eztabaida txapelketan hartu du parte epaile gisa. Lehiaketa azaroaren 17tik 19ra bitartean egin zen gai honen inguruan: *Europa osoaren onura lehenetsita, “out is out”?*

Aldezleak antolatutako jarduerekin jarraituz eta ikasleak konturazteko zein garrantzitsua den pertsona moduan prestakuntza osoagoa hartzea *Deusto Campusek* antolatzen dituen jardueretan parte hartuz eta inplikatur batez ere, apirilaren 6an *afterwork* bat eratu zen “Nola indartu dezakezu zure curriculum?” izenburupean. Ivan Jiménez Bizkaia Talentiako zuzendari kudeatzaileak hartu zuen parte eta ikasleek aukera izan zuten hausnartzeko, eztabaidatzeko eta ideiak emateko, unibertsitateko gestoreek kontuan hartzeko modukoak, zalantzarik gabe. Aipatu behar dugu hainbat ikaslek eman zutela izena deia egin zenean baina gutxi hartu zutela parte azkenean. Ondorioz, jarduera honen antolaketa baliagarria izan zen, zeharka, ikasleak konturatu daitezzen zein garrantzitsua den emandako hitza betetzea edo, bestela, parte hartu ezina adieraztea.

iv. Beste batzuk

Nahiz eta zerbitzuak bazeramatzan hiru urte martxan, jarraitu dugu lanean ikusgarriagoa izan dadin. Ekintzen artean, Informatika Zerbitzuaren laguntzaz, erreklamazioak aurkezteko prozesua aldatu eta automatizatu egin da. Aurrerantzean, unibertsitateko elkarteko edonork egin dezake eskabidea, baita behar diren dokumentuak bidali ere, online (lehen bulegora joan behar zen). Aldaketa horrek, zerbitzuaren irisgarritasuna errazteaz gain, aurkeztutako informazioaren segurtasuna eta konfidentzialtasuna hobetu du.

Azken gogoetak

Urte hauetan aldezlearen eginkizunetan jardun ondoren, esan dezakegu Aldezlearen eguneroko zeregina, unibertsitateko elkartearentzako bermea ez ezik, unibertsitateko zerbitzuaren eta kalitatearen hobekuntza ere badakarrela. Erreklamazioak, kexa eta kontsulta erara aurkeztuta, eta aurkeztu diren gainerako gaiak lagungarri dira hobetu beharrekoak identifikatzeko eta unibertsitateko kide zehatzen eskubideen urraketa zantzuak detektatzeko eta, horrenbestez, konponbideak bilatzen laguntzeko. Kasurik gehienetan, arazoak ez dira garrantzi handikoak izan Unibertsitatearentzat, baina bai aurkeztu dituztenentzat, eta beti izan dira esanguratsuak inplikaturako pertsona edo zerbitzuaren zereginerako. Gainera, ahalegina egin dugu gure ekarpena ikasleei ere

zuzentzeko, beren prestakuntza osoagoa, zuzenagoa eta arazoetarako sentikorra goa izan dadin.

Urteotan, ikusmira unibertsitateko elkartearengan jarrita, denon kontzientziazioan eta zerbitzu honek eman ahal duen erantzunean ere egin da lan. Eta, aurrerapausoak agerikoak diren arren, oraindik ere badago bidea egiteko. Lan ondo egin eta elkarbizitza ona ageriko interesak dira gure unibertsitateko klaustroetan eta espazioetan, baina, eguneroko lanean, badira hainbat kontu sentikortasun handiagoa eta norberaren eta lantaldearen erantzukizun handiagoa eskatzen dutenak. Beharrezkoa da denok gogoeta egitea elkarlan handi goan aritzeko eta, hartara, norbanakoen eskubideen esparruan, eskakizun kolektiboak aseko dituen giza, zientzi eta kultur bizikidetzazko leku bat lortzeko.

Esker ona adierazi nahi diegu Aldezlearen zerbitzura jo duten guztiei, harengan eta beraren lanean jarritako konfiantzagatik. Espero dugu eman diegun arretan asmatu izana, baita erantzuna espero ez zutena izan denetan ere. Gure gogo guztia jarri dugu arazoei konponbidea aurkitzen laguntzeko, baita egoerarik zailenetan ere.

Berriz ere, eskerrik asko eguneroko lanean lagundu diguten pertsona, organo eta zerbitzuei, bereziki keak, kontsultak eta eskabideak helarazi dizkiegunean. Beti saiatu gara denen lana eta eskumenak errespetatzen, nahiz eta, Aldezlearen ebazteko ahalmenik ezagatik, batzuetan ados egon ez iritzietan eta, inoiz, ebazpenetan ere ez.

Gure azken hitzak unibertsitateko elkarteari zuzentzen dizkiogu: eskerrik asko Aldezleari erakutsitako errespetu eta begiruneagatik.